

Astelehena, 2013ko abenduak 23 - 09:25

Plaza

bilatu...

Bilatu

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)


[Paperekoa](#)
[PDFn](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)
[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)
[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2013-12-22

EZARIAN. SAN TOMAS

Erromesaldia talogileengana

Milaka lagun bildu dira Bilbon eta Donostian San Tomas eguna ospatzera, Areatza inguruan eta Parte Zaharrean

Eguraldi ona egin du, taloea eta txistorra jan, sagardoa edan eta festaz gozatzeko

IÑAKI LARRAÑAGA - ILARGI AGIRRE BILBO-DONOSTIA

«Bilbo gainezka ikusten dut. Larunbata suertatu da aurten, eta oso arriskutsua da hori San Tomas egunean. Sekula ez dut hainbesteko jendetzarik ikusi». Esperientziaren ahotsa da Juantxu Monasterioren. Txistua eta danborra altzoan zituela, Bilboko Alde Zaharreko Andra Maria kaletik zetorren, atzo goizean. 70 urtetan horrelakorik ez duela ikusi zioen irribarretsu. Eta ez zen gutxiagorako izan, Bilboko Areatza eta inguruko kaleetan jendetza egon baitzen atzo egun osoan.

Gizon txapeldunez eta baseritarrez jantzitako emakumeak ez ezik, ez zen hain irudi harrigarria izan kalean edateko bost litroko ontziak zituzten gazteak edota lehen aldiz txotx egiten zuten alemaniar ilehoriak ere ikustea. Sagardoa Plaza Barrian lortu zuten alemaniarrek, Axpe sagardotegiko saltokian hainbat botila erosita. *Mikrotxotx Windows* kamiseta jantzita, umorerik ez zitzaion falta saltzaileari.

San Nikolas elizaren paretari itsatsirik, agertoki bihurtutako kamioi batek Arkaitz Estiballes, Oihana Bartra eta Peio Ormazabal bertso saioa jazo zuen. Oholtzara igo aurretik, haren izkina batean zeuden hiru bertsolariak hizketan, bertsotan noiz hasiko zain: «Jendez gainezka dago Bilbo, eta gaurkoa aukera polita izaten da egunez parranda egiteko. Ea saio polita irteten zaigun eta gero talo bat jateko aukera daukagun», zioen Estiballesek txakolin basoa eskuan zuela. Ormazabal eta Bartra etxetik irten berri zeuden. «Dena den, eman hiru ordu gehiago, orduan alaiago egongo gara eta», zioten biek.

Handik hurbil, Areatzan, ausartenek soilik izan zuten azokaren erdigunera hurbiltzeko balentria. Bertan zeuden Berrizko (Bizkaia) Gaizka Aldekoa eta haren ama salmahai batean saltzen. Hiru babarrun mota, intxaurrak eta arto irina ekarri zituzten azokara, eta eguerdirako lauzpabost babarrun poltsatxo besterik ez zitzaizkien geratzen. «Eguna ondo ez, zoragarri doa. laz baino jende gehiago sumatzen da; igartzen da larunbata dela».



Bilbon jendetza batu zen atzo; larunbata izateak lagundu zuen, eta saltzaileak pozik zeuden. / MARISOL RAMIREZ/ ARP



Taloea eta txistorra izan ziren eguneko protagonistak; jendeak ilara luzeak egin zituen jateko. / JON URBE/ ARGAZKI PRESS



Donostian, Aietetik upelean jaitsi zuten sagardoa Bretxara. / GORKA RUBIO/ ARP

Albisterik...

[IRAKURRIENAK](#)
[Bozkatuenak](#)
[Bidalienak](#)

- 1 Bi eskalatzaile erreskatatu dituzte Ibarra
- 2 Bake prozesua bultzatzeko batzordea aurkeztuko dute Aieten
- 3 Eguberrietako loteriak 180 milioi euro utzi ditu Arrasaten
- 4 Gaur onartuko dituzte Gipuzkoako aurrekontuak
- 5 Gidoi errepikatua

Erakusleihu galanta izanik, San Tomas aldarrikapenen gune ere bihurtu zen. Abortuaren aldekoen eta gaixo dauden presoen senideen elkarretaratzeak ez ezik, gaixotasun arraroen ezagutza sustatzea helburu duen Berritxuak elkarteak ere Arriaga parean egin zuen berea. Handik bost metrora, BBK Bioeskolak baratze bertikala eraiki zuen. Gizarte bazterketa jasan dezaketen pertsonen zuzendutako eskola da berau; nekazaritza ekologikoaren bitartez, gizarteratze duinagoa izateko helburuz sortutakoa. Ortu bertikala homitzeko asmoz, sasoiko barazkiak eskegitzeko eskatu zieten umeei. «Trukean, letxuga, espinaka, porrua, kipula edota azalore landare txikiak oparitu dizkiegu etxera eramateko», azaldu zuen Nagore Etxebarria proiektuko arduradunak.



Donostiako Konstituzio plazan egon zen *Jaxinta* zerrama. / JON URBE/ ARP



Donostian ere jendetza

Jendetza bildu zen baita ere Donostian, Parte Zaharreko kaleak leporaino bete ziren egun osoan. Asko baserriarrez jantzita, adin guztietako jendea zebilen batetik bestera, giro ederrean. Konstituzio plaza zen festaren erdigunea, eta hantxe zegoen baita ere eguneko protagonista: 340 kilo inguruko *Jaxinta* zerrama. Leitzako Arro baserriatik iritsita, bidaia nekatu egin zuen nonbait, eta belarriak bakarrik mugitzen zituen, noizbehinka. Inguruan bultzadak eman beharra zegoen zerrama ikusi ahal izateko. Lehendabiziko ilarara iristea lortu zuten artean zeuden Juan Carlos Crego eta haren seme-alabak, argazki kamera eskuan. «Andoaindik etorri gara, eguna pasatzera. Argazkiak aterako ditugu, eta erosketak egin», esan zuen Cregok gozokiz betetako poltsa erakutsiz. Alboan, Tomas Crego semeak harrিতuta begiratzen zion zerramari. «Begira zein luzea den», zioen.

Zerramarekin batera, eguneko beste protagonistak: taloea eta txistorra. Festan sartzeko taloea txistorrearekin jan beharra zegoela zirudien. Erromesaldia egin behar zela nahitaez Ataungo, Baztango edo Segurako talogileengana, fede itsu batek bultzatuta bezala. Ilara luzeak egin ziren, ondorioz; ordu erdi itxaron zuten askok. Ohiko talogileek ez ezik, ikasbidaiarako dirua lortzeko hainbat salmahai muntatuta zeuzkaten unibertsitateko eta batxilergoko ikasleek ere. Axular Lizeoa, EHUKo Arkitektura Fakultatea, Luis Irizar sukaldaritza eskola eta abar jartzen zuten Konstituzio plazako salmahai gaineke karteltxoetan. Originalak izan nahian, gula errazioak saltzen ari ziren Gurutze Gorriak postuan. Juan Carlos Gonzalez zegoen saltzaile. «Bai, jendea harritu egiten da hasieran, baina oso harrera ona izaten dute gero gulek. Urteak daramatza saltzen. Errazioa 3,5 eurotan, eta pintxoak, 2 eurotan». Guztira 210 postu egon ziren Donostian atzo, iaz baino 22 gehiago.

Jaxinta-rengandik gertu zegoen Animalien Eskubideen Aldeko Elkartearen salmahai ere. «Animaliak hil eta gaizki tratatzearen aurka gaude. Horregatik gara begetarianoak, eta ez dugu haragirik saltzen, ezta jaten ere», zioen Maria Amonarraizek. Sojaz egindako saltxitxak, seitan pintxoak eta hanburger begetarianoak zituzten aukeratzeko, eta «pixkana» baina ari omen ziren saltzen.

Bulebar inguruan ere jendetza bildu zen eguerdia gerturatu ahala. Atsedetik hartzen ez zuten txalapartariak, San Silvestre lasterketa iragartzen zuten bizikleta musika ozen-ozen jarrita, trikitilariak kalejiran... Igeldoren aldeko pankarta ugari ikusten ziren kaleetan zintzilik, eta aurtengo berrikuntza: Aieteko Katxola baserrian sagardoa nola egiten zen azaldu zuten goizean, eta Bretxara jaitsi zuten idiekin upela. Okendo plazan, berriz, era guztietako animaliak zeuden ikusgai. Pablo Sarasola emaztearekin eta seme-alabekin zegoen ardiei begira. «Haurrei asko gustatzen zaie animaliak ikustea. Egun berezia da. Gero elkarte gastronomiko batera joango gara mokadutxoak jatera».

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa |  

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
Telefona: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia